

MEDIKUNTZA NUKLEARREKO IRUDIAREN IKUSTEA OSASUN-SISTEMAREN HISTORIA KLINIKO BIRTUALEAN

Almeida P., Gil C., Blanco N., Velaz C., Goñi E., Estebanez C.

MEDIKUNTZA NUKLEARREKO IRUDIAREN IKUSTEA OSASUN-SISTEMAREN HISTORIA KLINIKO BIRTUALEAN

ALMEIDA P

GIL C

BLANCO N

VELAZ C

GOÑI E

ESTEBANEZ C.

Medikuntza Nuklearreko zerbitzua.

Nafarroako Ospitalea

IRUÑA

1999tik, historia kliniko informatizatua Nafarroako Osasunbidearen helburua da. Horren bitartez, bai Lehen mailako Saretik, bai Espezialitate-Zentroetatik baita Ospitale-Saretik ere (Nafarroako Foru Komunitateko osasun-sail guztiak barne hartzen dira), gaixoari buruzko erabilitako informazio guztiak osatzen saiatzen gara, laguntza medikokoak zein administrazio-datuak.

Medikuntza Nuklearreko Zerbitzuak, historia kliniko birtualak eskaintzen duen sartzeko erraztasuna aprobetxatzen du, bere txosten klinikoa ez ezik, txostena osatzen duten irudiak ere zabaltzeko.

Hori egiteko, gammakameraren bidez eskuratzen dira irudiak. Irudi hauek gammakameretako ordenagailuetan prozesatu eta gero, gehien interesatzen zaizkigunak sistemaren sare nagusira bidaltzen dira. Estazio honetan transformatu egiten ditugu (tiff-etik edo gif-etik jpg-ra) programa bati esker eta Windows NT izeneko zerbitzarian biltzen ditugu.

Prozesu honek arin eta erraz kontsultatzeko modua eskaintzen die gure zerbitzuko sendagileei eta baita besteei ere. Horretaz gain, ondoren egiten diren azterketen eboluzioaren segimendua ere egin dezakegu.

Historia kliniko informatizatuan txostena kontsultatzen denean (Osasunbidearen mediku guztien eskura dago txosten hori), dagozkion prozesatutako irudiak ikus daitezke aldi berean, irudiaren artxiboaren erreferentzia txostenean sartuta baitago.

Gaixoen intimitate-eskubidea errespetatzeko, hierarkia sarbidea eta erabiltzaile bakoitzaren profila diseinatu dizkiote sistemari, ederki ulertuz profesionalek eskubide horri begirunea izan behar diotela, ohizko historia klinikoa balitz bezala.